



CONCEPT

iC/AZ

Kolektibo egoiliarra Azkuna Zentroan

 **inteligencias
colectivas**

CONCEPT

Az

Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

CONCEPT

FORMATO

IKERKETA-EKINTZA
PARTE HARTZAILEA

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

IKERKETA-EKINTZA PARTE HARTZAILEA

Ikerketa-Ekintza Parte Hartzailea edo IEPH ikerketa, aztertuak izango diren kolektiboen partaidetzan oinarritzen da. Egoera kolektiboak hobetzearen emaitza fidagarri eta erabilgarriak bilatzen dituen azterlan eta akzio metodiko kualitatiboa da. Modu honetan, aztertuak diren biztanleria taldeek edo kolektiboek ikerketa “objektuak” izatetik ikerlaneko “subjektu” protagonistak izatera pasatzea bilatzen da, ikerketa prozesua (diseinua, faseak, bilakaera, ekintzak, proposamenak ...) kontrolatuz eta elkarri eraginez. Pertsonal teknikoak aztertuko duen komunitatearekin elkar bizi eta tartean nahastea beharrezkoa da. IEPHak, mundua elkarlankidetzatik eta gogoetatik aldatzen sahiatzearen bidez, hau ulertzea bilatzen du. IEPH prozesuaren barnean, azterketa eta ekintza komunitateek adierazgarriak diren galderak eta arazoak garatzen dituzte beste co-ikertzaileekin parte hartzen dutenentzat

* (REASON AND BRAOBURY, 2008, P. 1). *WIKIPEDIATIK (2016/05/09)
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/INVESTIGACIÓN-ACCIÓN _PARTICIPATIVA](https://es.wikipedia.org/wiki/INVESTIGACIÓN-ACCIÓN_PARTICIPATIVA)



CONCEPT

FORMATO

HERRITAR KARTOGRAFIA

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

HERRITAR KARTOGRAFIA

Herritar Kartografia herritar autoantolatuek libre eta boluntarioki, edukiak/jakintzak zein gailu espresiboak sortzeko edozein motatako lurralde (fisiko edo digitala, topografiko edo soziala eta semantikoa) edo bertan bizi diren agenteen arteko erlazioak mapeatzearen ematen diren prozesu sozialak dira. Produkzio hau jakintza, zientzia eta teknologia ezberdinak mobilizatzen dituzten praktika sozialen bitartez aurrera eramaten da. Herritar Kartografia bat bultzatzen dituzten motibazioak ez dira irabazi-asmoan edo garaipen militarrean oinarritzen, ezagupen berrien sormenean baizik, sortzaileak kokatu, ahaldundu eta aldi berean eraberritze soziala, antolatzailea eta teknologikoa sustatuz. Herritar Kartografiak, bai bere praktikan zein bere emaitzetan subjektibotasuna sortzen duen prozesua bezala definitu daiteke, hala ere, zientzia ortodoxoek emaitza objektibotzat hartzen dituzten ondorioetara ere joera izan dezakete. Dena den, Herritar Kartografia ez da neutrala, sortzaileen nahi, behar eta subjektibotasunetatik abiatzen baita eta bide espresiboak erabiltzen baitituzte beste subjektibotasunei lortutako datuak, informazioak eta jakintzak komunikatzeko.

* WIKIPEDIAKO DEFINIZIO (ITZULTZE PROPIOA) (2016/02/09)
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/CARTOGRAF%. \(3%. AOA_ GUADANA](https://es.wikipedia.org/wiki/Cartograf%C3%ADa_Guadana)



CONCEPT

FORMATO

HERRITAR LABORATEGIA

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

HERRITAR LABORATEGIA

Orokorrean esan dezakegu herritarren laborategi bat teknokulturaren arloan batik bat herritarren ikaskuntzarako zuzenduak diren ekintzak garatzen dituen erakundea dela. Hala ere ikasketa praktikoa da eta emaitza modura teknokulturaren diseinu praktikarekin bat datozen produktuak eta ezagupen berriak ematen ditu. Herritarren laborategiak ikerkuntza laborategien zenbait osagarri azaltzen dituzte, berrikuntza metodo eta garapen teknologikoari dagokionez, baita lankidetzaren ereduaren ikerkuntzan eta berrikuntza prozesuen antolaketa ereduaren ere. Teknologia digitalen laborategien osagarriaren bat ere badituzte diseinu digitalen arloari dagokionez.

*SANGUESA, R. (2014). LA TECNOCULTURA Y SU DEMOCRATIZACIÓN: RUIDO, LÍMITES Y OPORTUNIDADES DE LOS LABS. REVISTA IBEROAMERICANA DE CIENCIA TECNOLOGIA Y SOCIEDAD, 8(23), 259-282.

HEMENDIK HARTUA (2016/02/12) ITZULTZE PROPIOA

[HTTP://CO-CREATING-CULTURES.COM/ES/WP-CONTENT/UPLOADS/2012/06/
TEXTO-SANG%. \(3%. BCESA _CAST1.PDF](http://co-creating-cultures.com/es/wp-content/uploads/2012/06/TEXTO-SANG%. (3%. BCESA _CAST1.PDF)

Az

Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

CONCEPT

FORMATO

PROGRAMAZIO HEDATUA

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

PROGRAMAZIO HEDATUA

Programazio Hedatua (PH)

- 1/ Ekosistema modura jarduten du
- 2/ Produkzio eta praktika artistikoak ditu
- 3/ Segizio osagarri bat ondorioz dakarren hitzarmen bat jazotzen dau
- 4/ Esperientzia ludikoak gurutzatzen dituen espazio eta jardunaldiak proiektatzen ditu
- 5/ Elkarrizketa zabaltzen du
- 6/ Elkarrekintzara eta beste espazio, praktika eta generoekin konektatzeko zabalik dago
- 7/ Kudeaketa horizontala ematen da
- 8/ Espazio bizigarrian interfaze emozionala sortzen du
- 9/ Argudiatuz diskurtsoa bateratzen du

*2014KO MARTXOAK 11 ETA 13AN BITARTEAN GALIZIAN OSPATUTAKO MOV-S MINTEGIAN PARTE HARTZAILEEK BITARTEKOTZA HEDATUARI BURUZ EGINDAKO DOKUMENTUAREN PARTE (ITZULTZE PROPIOA): [HTTP://WWW.MOV-S.ORG/](http://www.mov-s.org/) PROGRAMACION-EXPANDIOA

Az

Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao



CONCEPT

FORMATO

PROTOTIPOA



iC/AZ
BILBO COMMONS
ic **inteligencias**
colectivas



PROTOTIPOA

Prototipo hitzak definizio mota desberdinak ditu:

- Prototipo bat gauza bat fabrikatzeko egiten den alea edo lehen moldea da
- Prototipo perfektu bat eta bertute, bizio edo ezaugarri baten eredu
 - Prototipo bat proban dagoen edozein makina izan daiteke, baita edozein motatako erakusketarako diseinatua izan den objektua ere
 - Prototipoa Edo prototipazio bat software baten bizi-zikloaren modelo bat izan daiteke; adibidez garapen kiribila edo garapen turrusta
 - Edertasun prototipoa, historiaren arabera aldatzen joan den pertsonen gorputzak zein jantziak nolakoa izan behar duen esaten duen eredu da.

Hauek, objektua ekoizte sisteman sartu baino lehen frogatzea, akatsak zuzentzea, hobekuntzak egitea, etab. baimentzen dute. Behin prototipoa zentzu guztietan perfektzionatua izan denean eta pentsatua izan denerako helburu guztiak lortzen dituenean, objektua ekoizten hasiko da.

* WIKIPEDIAKO DEFINIZIOA (09/05/2016)

[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/PROTOTIPO](https://es.wikipedia.org/wiki/Prototipo)

HEMENDIK HARTUA (2016/02/12)

[HTTP://CO-CREATING-CULTURES.COM/ES/WP-CONTENT/UPLOADS/2012/06/](http://co-creating-cultures.com/es/wp-content/uploads/2012/06/Texto-Sang%20BESA_CAST1.PDF)
[TEXTO-SANG% \(3% BESA _CAST1.PDF](http://co-creating-cultures.com/es/wp-content/uploads/2012/06/Texto-Sang%20BESA_CAST1.PDF)

[HTTP://CO-CREATING-CULTURES.COM/ES/WP-CONTENT/UPLOADS/2012/06/](http://co-creating-cultures.com/es/wp-content/uploads/2012/06/Texto-Sang%20BESA_CAST1.PDF)
[TEXTO-SANG% \(3% BESA _CAST1.PDF](http://co-creating-cultures.com/es/wp-content/uploads/2012/06/Texto-Sang%20BESA_CAST1.PDF)





CONCEPT

FORMATO

SAIAKUNTZA



iC/AZ
BILBO COMMONS
ic **inteligencias**
colectivas



SAIAKUNTZA

Saiakuntza bat fenomeno zehatz batekin erlazionatutako hipotesi bat edo batzuk bere sortzaileak diren aldagaien arteko harremanak eraldatuz eta aztertuz egiaztatzen dituen prozedura da. Saiakuntza, ikerkuntza zientifikoaren funtsezko elementuetako bat da kausazko argibideak eskaini ahal izateko. Saiakuntza batetan, fenomenoan parte hartzen duten aldagai nabari guztiak kontutan hartu egiten dira, kausatzaile direla susmatzen direnak manipulaturik, aldagai bitxiak kontrolaturik eta gainerakoak aleatorizaturik. Prozedura hauek, diziplinaren arabera asko alda dezakete baina helburu berdina jarraitzen dute: emaitzen azalpenean, argibide alternatiboak baztertu (aldagai manipulaturik ezberdinak direnak). Aspektu hau esperimentuaren barne baliotasuna bezala ezagutzen da, eta hau handiagotu egiten da esperimentua beste ikerlariek errepikatu eta ondorio berdinak lortzen dituztenean. Saiakuntzaren errepikapen bakoitza proba edo entsegua deitzen da. Esperimentua egiteko modu ezberdinak (unitate esperimentalen banaketari dagokionez kondizio zein taldeetan) ikerkuntza protokolo bezala ezagutuak dira. Esperimentazioa ez da bakarrik zientzien eremuan gertatzen, pertsonalki eta txikitatik esperimendatzen bizi baitgara, etengabe hipotesiak baieztatzen edo ezeztatzen guru inguruarekiko erlazioak hobetzeko helbururekin.

* WIKIPEDIAKO DEFINIZIOA (2016/05/09) ITZULTZE PROPIOA
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/EXPERIMENTO](https://es.wikipedia.org/wiki/Experimento)



CONCEPT

FORMATO

IKERKETA ESPERIMENTALA

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

IKERKETA ESPERIMENTALA

Ikerketa esperimentalak, metodo zientifikoan aritezen diren saiakuntza eta printzipioak erabiltzen dituen ikerkuntza mota bat da. Saiakuntzak laborategian zein honetatik kanpo burutu daitezke. Hauek pertsona talde txiki bat sartu ohi dituzte eta nahiko bideratua dagoen galdera bati heltzen diote. Esperimentuak eraginkorragoak dira ikerketa azaltzaileentzat eta ohiz, ikerlariak pertsonak aurkitzen diren egoera maneiatzeko gaitasuna duten gaietara, mugatzen dira.

Saiakuntza gehienetan, ikertzaileak, ikerketa objektu diren pertsonak bi edo talde gehiagotan banatzen ditu. Bi taldeek trataera berdina jasotzen dute, ikertzaileak talde bati eta ez besteari, bere interesekoak diren baldintzak ematen dizkiolako traamendua izan ezik. Ikertzaileak bi taldeen erreakzioak zehaztasunez neurtzen ditu. Bi taldeen kondizioen kontrolaren bitartez eta tratamendua bakar bati emanez, bien erreakzio desberdinak tratamenduaren emaitza direla ondorioztatu dezake.

* WIKIPEDIAKO DEFINIZIOA (2016/09/05) ITZULTZE PROPIOA
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/INVESTIGACI%27.\(3%20B3N_EXPERIMENTAL](https://es.wikipedia.org/wiki/investigaci%27.(3%20B3N_EXPERIMENTAL)



CONCEPT

FORMATO

PUBLIKOAREKIKO
PARTAIDETZA ETA
ERLAZIO MODUAK

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

PUBLIKOAREKIKO PARTAIDETZA ETA ERLAZIO MODUAK

+ Kontribuzio proiektuetan, bisitariari instituzionalki kontrolatua izango den prozesu batentzako objektuak, egintzak edo berariazko ideiak ekartzea eskatzen zaie. Ekintza mota hauetan, plataforma modura iruzkin taulak edo kioskoak erabiltzen dira istorioak partekatzeko.

+Elkarlankidetzaren proiektuetan, erakundeek sorrarazitako eta azkenean haiek kontrolatuko dituzten(...) proiektuen sorkuntzan, bisitariak kide bezala parte hartzeri gonbidatzen dira

+ Elkarrekin sortutako proiektuetan, komunitate bateko kideek erakundeko kideekin hasieratik elkarrekin lan egiten dute, komunitatearen interesetan oinarrituz, proiektuaren helburuak zehaztu eta programa sortzeko.

. Laugarren eredu bat gehitzen dut: Egoitza. Proiektu egoiliarretan erakundeak instalazioen parte eta baliabideak eskaintzen ditu publiko talde batek edo aldizkako bisitariak garatutako eta inplementatutako programak aurkezteko. Eredu hau erakunde kultural zein zientifikoetan ematen da. Erakundeek espazioa eta tresnak partekatzen ditu interes arlo zabala dituzten komunitateko taldeekin; astronomo amateurretatik ehuletaraino. Online, programatzaileek, objektuen erregistro kulturalak edo datu zientifikoak erabiltzen dituzte oinarri bezala haien ikerketen edo produktuentzako. Jolas-zaleek, erakundearen zorua joko irudimentsu handi baten taula modura erabil dezakete. Proiektu egoiliarrek, proiektuan parte hartzen dutenek, erakundeak haien beharrak asetzeko erabili ahal izatea baimentzen dute, erakunderen laguntza minimo batekin.

* SIMON, NINA, PARTICIPATORY CITY, CHAPTER 5: DEFINING PARTICIPATION AT YOUR INSTITUTION [HTTP://WWW.PARTICIPATORYMUSEUM.ORG/CHAPTERS/](http://www.participatorymuseum.org/chapters/)
ITZULTZE PROPIOA



CONCEPT

FORMATO

LIVING
LAB

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

LIVING LAB

“Living Lab” edo “Laborategi biziduna” (Life Lab kontzeptutik oso desberdina dena), sistemaren egikari guztiek (Estatua, Sektore Produktiboa, Akademia, Sozietate zibil antolatua eta hiritarrek aurrekoen izateko arrazoi modura) aktiboki parte hartzen duten eredu berria da. Berrikuntzaren egokitzean (irekia eta elkarlankidetzakoa), elkar sorkuntzan eta haietzako beharrezkoak diren erantzunen balioztatzean, benetazko testuinguruetan, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) erabilpenean, Berrikuntza Soziala modu iraunkorrean ahalbidetzen duen Ikerkuntza eta Garapen ekosistema bati bide emanez diharduen eredu litzateke. (...) Living Lab kontzeptuaren jatorria Massachussets Institute of Technology (MIT Media Lab)-ko Bill Mitchell arkitektura irakaslean eta Architecture and City Planning Arkitektura eskolan datza. Etengabeko eraldatze prozesuetan dauden inguru errealetan prototipoak egin, probatu, balioztatu eta emaitza konplexuak hobetzeko ikerketa metodologia bezala aurkezten da.”

* (HEMENDIK HARTUA (ITZULTZE PROPIOA) [HTTP://OPENLIVINGLABS.I2CAT.CAT/DOCUMENTS/EURO-PAIZ2010_INFONOMIA.PDF](http://openlivinglabs.i2cat.cat/documents/euro-paiz2010_informomia.pdf).)”





CONCEPT

FORMATO

SOZIOGRAMA



iC/AZ
BILBO COMMONS
ic **inteligencias**
colectivas



SOZIOGRAMA

“Taldea erradiografia bat lortzea bilatzen duen teknika da, hau da, behatzearen eta testuinguruan kokatzearen bitartez, taldea osatzen duten pertsona ezberdinen arteko harremanak grafikoki lortu, influentzia eta zaletasun loturak agerian jarriz . Harreman mota hauek normalean ez dira formalak izaten, informalak baizik.”

* WIKIPEDIAKO DEFINIZIO (ITZULTZE PROPIOA) (2016/09/02)
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/SOCIOGRAMA](https://es.wikipedia.org/wiki/Sociograma)



CONCEPT

FORMATO

AUTO-
ANTOLAKETA

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

AUTO-ANTOLAKETA

Auto-antolaketa hasiera batean izarigabeko sistema bat osatzen duten osagarrietatik orden edo antolaketa modu bat ematen duen prozesua da. Prozesu hau espontaneo da: barruko zein kanpoko edozein azpi-sistemak ez du ez zuzentzen ez kontrolatzen, hala ere, prozesuak jarraitzen dituen hasierako lege eta baldintzak, agente batengatik sortuak edo aukeratuak izan daitezke.

Prozesuak orokorrean ausazko gorabeherak eragiten dituzte eta sustatze positibo baten ondorioz anplifikatuak izaten dira. Sortzen den antolaketa guztiz deszentralizatua edo kide guztien artean banandua egoten da; antolaketa mota hau, ohiz oso sendoa izaten da, bizirik ateratzeko eta kalte edo funtsezko nahasmenak auto-konpontzeko gaitasuna ere izaten du. Auto-antolaketa mota askotako fenomeno fisiko, kimiko, biologiko, sozial eta sistema kognitiboetan ematen da. Adibide arruntak bezala: kristalizazioa, fluido baten konbekzio patroien gailentzea, osziladore kimikoak, ekonomiaren esku ikusezina, animalia multzoak eta sare neuronalak patroik konplexuak antzematera ikasten duen moduan.

*WIKIPEDIako DEFINIZIOA (2016/05/09)
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/AUTOORGANIZACIÓN](https://es.wikipedia.org/wiki/Autoorganización)



CONCEPT

FORMATO

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

iC/AZ
BILBO COMMONS
© inteligencias
colectivas

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

“Partaidetza egoki bat, informazioa trukatzeko mekanismoa eman eta agenteen eta proiektuaren talde kudeatzailearen arteko elkarrekintza sustatzen duen bi noranzkoko komunikazio prozesu da. Administrazio batzuk arreta gutxi ematen diote agenteen partaidetzari, alde batetik garraioari dagozkion erabakiak hartzeko, profesionalak haien ikuspegi teknikoarekin erabakiak hartzeko egokienak direla kontsideratzen dutelako, baita politiko lokalek, haiek agente ezberdinen interesak hobeto aurkezten dituztela pentsatzen dutelako.

Parte-hartze prozesuetan onura ezberdinak daude:

- Erabiltzaile/ bezeroen ikuspegia ematen duenez, ezarrita dauden proiektuez gain, proiektu eta plan berriak hobetzen lagundu dezake.
- Kudeaketa eraginkor eta argi batekin konpromisoa erakusten du.
 - Ekintzaileen papera indartzen du proiektuaren onarpena handiagotuz.
 - Erabakitzea bere fase guztietan lagundu eta hobetzen du.
- Proiektua atzeratu edo baliogabetu dezaketzen ihardukitze arazo larriak saihestu daitezke.
- Eraikuntza faseetan proiektuen garapena erraztu dezake.

* WIKIPEDIAKO DEFINIZIO (ITZULPEN PROPIOA) (2016/05/09)
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/PARTICIPACI%C3%B3n_ciudadana](https://es.wikipedia.org/wiki/Participaci%C3%B3n_ciudadana)





CONCEPT

FORMATO

**PEER
TO
PEER**

iC/AZ

BILBO COMMONS

ic **inteligencias
colectivas**



PEER TO PEER

Peer-to-peer sare bat, pareen sarea, sareen sarea, berdinkideen arteko sarea edo pareen arteko sarea (P2P, ingeleseko sigletatik), arlo batzuk edo guztiak bezerorik zein zerbitzari finkorik gabe funtzionatzen duen ordenagailu sarea da; haien artean berdinki funtzionatzen duen nodo multzoa da. Hau da, sareko beste nodoekiko bezero eta zerbitzari modura funtzionatzen dute aldi berean. P2P sareek, elkarrekin konektatuak dauden ordenagailuen artean, edozein formatutako informazioaren truke zuzena baimentzen dute. Normalean sare mota hauek Internet moduko sare publikoen aplikazio geruzetan, sare gainjarrien moduan eraikiak izaten dira. Peer-to-peer sareek, sarearen beste erabiltzaileen banden zabaleraren erabilera aprobetxatua eta optimizatu egiten dute, elkarren arteko konektibitatearen bitartez. Modu honetan, metodo zentralizatu konbentzionaletan baino errendimendu altuagoa lortzen da, non zerbitzari kopuru txiki erlatibo batek, bandaren zabalera osoa eta partekatutako baliabideak ematen ditu zerbitzu edo aplikazio batentzako.

* WIKIPEDIAKO DEFINIZIOA (ITZULPEN PROPIOA (2016/05/09))
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/PEERY_TRANSFERENCIAS_QUE_CON_ALGUNOS
-TO-PEER](https://es.wikipedia.org/wiki/Peery_transferencias_que_con_algunos-to-peer)





CONCEPT

TEMA

KOMUNITATEA



iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas



KOMUNITATEA

Komunitate bat (latinetik *communitas*, -*ātis*), ezaugarri amankomun batzuk dituzten gizabanakoen taldea da; adibidez, hizkuntza, ohiturak, balioak, munduaren ikuspuntua, adina, kokapen geografikoa (auzo bat, adibidez), estatus soziala edo rola. Komunitate batetan taldekideen artean sozializatua eta sortua izan den identitate komun bat sortu ohi da, beste talde edo komunitateekiko desberdintzearen bidez (orokorrean ekintza eta ikurrekin). Oro har komunitatea behar baten edo objektibo komun batengatik batzen da, guztien ongiagatik adibidez. Azken hau ezinbestekoa ez baldin bada ere, nahikoa izaten da identitate komun bat, objektibo konkretu bat eduki gabe, komunitate bat sortzeko.

* WIKIPEDIAKO DEFINIZIOA (ITZULPEN PROPIOA) (2016/02/09)
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/COMUNIDAD](https://es.wikipedia.org/wiki/Comunidad)





CONCEPT

TEMA

PROKOMUNA



iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas



PROKOMUNA

“Komunak, “prokomuna” edo ongi komunalak, onura, jabetza edo ustiapen eskubideak talde edo komunitate konkretu batenak diren ongi, faktore produktibo edo baliabideak, prozesuak edo gauzak (materialak zein izaera ukiezinekoak) dira. Ustiapen taldea oso zabala izan daiteke, adibidez, gizabanako guztiak, edo herrialde, eskualde, hiri edo herri bateko biztanleak, baita murriztuagoa ere, familia bat edo familia bateko kide batzuk, helburu zehatz baterako sortutako pertsona talde bat (adibidez, kooperatiba bat edo sozietate anonimo bat). Gaur egun prokomun bezala onartzen diren ongiak, baliabideak, prozesuak edo gauzak, ongi publiko edo ongi publiko orokor (libre) eta fisikoetatik (itsasoa edo airea), “ongi abstraktueta” (defentsa edo segurtasun nazionala) edo ezagupen orokorrera edo instantzia espezifikueta doa. Kontzeptu hau estuki lotuta dago jabari publikoarenarekin; prokomunaren barne dauden elementu batzuk izan dezaketen modu juridikoa baita.

* WIKIPEDIako DEFINIZIOA (ITZULPEN PROPIOA) (2016/02/09)
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/BIEN_COMUNAL](https://es.wikipedia.org/wiki/Bien_comunal)



CONCEPT

TEMA

HIRIAREN KUDEAKETA POLIZENTRIKOA

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

HIRIAREN KUDEAKETA POLIZENTRIKOA

“Polizentrikoa”, formalki bereizirik dauden erabakitze zentro ezberdin ugariduna esan nahi du. Benetan modu independente batetan funtzionatzen duten edo errealitatean elkarren menpeko harreman sistema bat osatzen duten, kontu enpirikoa izango da kasuan kasu. Haien artean konpetitibitate erlazioak, kontratu akordio edo akordio kooperatibo desberdinetan sartu edo gatazkak konpontzeko mekanismo zentraletara jotzen duten bitartean, metropolitarr eremu bateko jurisdikzioak, modu koherentean funtzionatuko dute, portaera interaktiboa duten, iragarri daitezken eta sendoak diren patroien bidez. Hau horrela ematen den neurrian “sistema” baten moduan funtzionatzen dutela esan ahal izango dugu.

OSTROM, ELINOR. “BEYOND MARKETS AND STATES:
POLYCENTRIC GOVERNANCE OF COMPLEX ECONOMIC SYSTEMS.”
TRANSNATIONAL CORPORATIONS REVIEW 2.2 (2010): 1-12.
[HTTP://WWW.NOBELPRIZE.ORG/NOBEL_PRIZES/ECONOMIC-SCIENCES/
LAUREATES/2009/OSTROM_LECTURE.PDF](http://www.nobelprize.org/nobel_prizes/economic-sciences/laureates/2009/ostrom_lecture.pdf)

Az

Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

CONCEPT

TEMA

HIRIEN ZIENTZIA AKTUALIZATUA

iC/AZ
BILBO COMMONS
inteligencias
colectivas

HIRIEN ZIENTZIA AKTUALIZATUA

Gai urbanoen espektroa kontutan hartuko duen (konplexutasun zientzietatik, fisika, biologia, psikologia soziala eta soziologiaraino) eta gailentzen ari den hirien zientzia aktualizatua eraikitzeko baliagarriak izan daitezkeen funtsezko ideia batzuk adierazten ditu Michael Mehafyek (2014)

- Hiriak sare espazialak dira. Elkarren artean konektaturik eta artekari elementuen bitartez (sarbide ate bat, semaforo bat kale gurutze batetan, etab.), erregulatuak dauden ibilbide trinkoen sareak.
- Hiriak sare sozialak dira. Jendearen kontaktua konektatu edo mugatzen dute, haien elkarrekintza sozialak, ekonomikoak zein gatazka eta jarrera kaltegarriak ere, zehaztuz.
- Hiria, partzialki deszentralizatua dago eta partzialki auto-antolatutako egikariz sortua. Agerikoa izaten da hau hiritarren portaera autonomia eta haien arteko elkarrekintzak behatzean. Interakzio hauek elementu ezberdinak ezarriz edo kenduz (bai hesi bat zein eraikin bat) kontrola eta epe luzean hiraren egitura fisikoa aldatu dezakete.
- Hiriak eta eskalabilitatea. Maila lokalean jarduten diren oinarrizko printzipio multzo txiki baten arabera bilakatzen dira baina errepikatzeko ahalmena dute, bere ezaugarri sozial, espazial eta bere azpiegituran eragina duten eskala erlazio talde bat jarraituz.
- Hiriak sistema kognitibo eta sinbolikoak dira. Esperientziek eta elkarrekintzek, auzokoek, etxe eta kale egituren barruena, eta eskala desberdinetako ekintza elkarkarien bitartez, esanahi subjektiboak topatzea ahalmentzen dute.

* "LA CIUDAD NO ES UN LABORATORIO" CÉSAR REYES NÁJERA + ETHEL BARAONA POHL | DPR-BARCELONA | - REN ATALA BAT . TWITTER: @DPR_ BARCELONA [HTTP://WWW.LACIUDADVIVA.ORG/BLOGS/?P=25086](http://www.laciudadviva.org/blogs/?p=25086)



CONCEPT

TEMA

BERRIKUNTZA SOZIALA

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

BERRIKUNTZA SOZIALA

Stanford Graduate School of Business-aren arabera, berrikuntza soziala, arazo sozial bati aurre egiteko erantzun berri bat da. Erantzun hau egungoa baino eraginkorragoa, efizienteagoa, jasangarriagoa edo zuzenagoa izanda eta gainerako balio erantsiarekin: gizarte osoari ekarpena egitea gizabanakoei bakarrik egin beharreen. (Murray et. al.

2008)k, berrikuntza soziala, aldi berean beharrak bete eta kolaborazio erlazio berriak sortzen dituzten ideia berriak (produktuak, zerbitzuak eta ereduak) bezala definitzen du. Hau da, biak, gizartearentzat onak diren eta gizartearen jarduketa ahalmena handiagotzen duten berrikuntzak daude. Nagusiki, oinarritzko helburu soziala duten erakundeek, garatutako eta sozializatutako, behar sozialak betetzeko asmoa duten ekintza eta zerbitzuak, berrikuntza soziala bezala ere definitzen du.

Berrikuntza soziala terminoak, gizartearen arlo desberdinetan ematen diren praktika berrien sorkuntza, ezartze eta hedatzean datza. Berrikuntzaren inguruko ikerkuntzan, berrikuntza teknikoak berrikuntza sozialetatik eta alderantziz, sortzen direnaz hitz egiten da. Baita ere aldiberekotasunean ematen diren berrikuntza sozial eta teknikataz ere. Modu polemikoan, zerk egiten du berrikuntza bat berrikuntza soziala izatea moduko galderak eztabaidatzen dira; gizartearentzako onura irizpidea erabakitzailea baldin bada, nola definitzen den onura hau. Modu berean adostasun zabala ematen da, berrikuntza terminoak, gizartearen erronka eta arazoentzat, erantzun eta irtenbideen bilaketarekin erlazio zuzena ezartzean.

* WIKIPEDIA (ITZULPEN PROPIOA) (2016/05/09)
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/INNOVACION_SOCIAL](https://es.wikipedia.org/wiki/Innovaci3n_social)





CONCEPT

TEMA

SMART
CITY



iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas



SMART CITY

Hiri bat edo hirigune bat adimentsua dela esango da, egiten diren inbestimenduak giza kapitalean (hezkuntza iraunkorra, hasierako irakaskuntza, ertain eta goi-mailako irakaskuntza, helduen hezkuntza), aspektu sozialetan, energia-azpiegituretan (elektrizitatea, gas), komunikazioen teknologietan (elektronika, internet) eta garraio-azpiegituretan, bizi-kalitate ona, ingurumen eta ekonomiarekiko garapen iraunkorra eta jasangarria, gobernantza partizipatiboa, baliabide naturalen kudeaketa zuhur eta burutsua eta herritarren denboraren aprobetxamendua kontenplatu eta bultzatzen dutenean.

Ur, elektrizitate, telekomunikazio, gas eta garraio azpiegitura efiziente eta iraunkorretan, eta larrialdi -segurtasun zerbitzu, ekipamendu publikoak, bulego eta etxebizitza eraikin adimenduetan oinarritzen diren hiri modernoek, herritarren erosotasunaren hobekuntzan bideratu behar dira, gero eta eraginkorragoak izanez eta kalitate zerbitzu berriak eskainiz, eta aldi berean, ingurumeneko aspektuak eta beheraldian dauden baliabide natural ez berriztagarriak, ahalik eta gehien errespetatuz eta zuhertasunez erabiliz. Gaur egun, hiri adimendu(-agoa) edo, espazio adimendu (-agoa) kontzeptua, marketingean oso erabilia da sozietate komertzialetan eta hiri-aglomerazioetan adituak direnen esku. Hala ere, ohiz, garrantzia alderdi bakar bati ematen zaio, garatu nahi den kontzeptua tradituz, hau funtsezko osagarri holistiko eta integrala baitu.

* WIKIPEDIATIK (ITZULPEN PROPIOA) (2016/02/09)
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/CIUOAO_INTELIGENTE](https://es.wikipedia.org/wiki/Ciudad_inteligente)



CONCEPT

TEMA

SOFTWARE
LIBREAREN 4
ASKATASUNAK

iC/AZ
BILBO COMMONS
© inteligencias
colectivas

SOFTWARE LIBREAREN 4 ASKATASUNAK

Richar Stallmanek ematen duen definizioaren arabera software bat “askea” da hurrengo askatasunak bermatzen dituenean:

1. Programa edozein helburuarekin erabiltzeko askatasuna (Erabilera).
 2. Programa nola funtzionatzen duen aztertu eta hau, beharren arabera, aldatzeko askatasuna (Azterketa)
 3. Programaren kopiak banatzeko askatasuna, beste erabiltzaileak lagunduz (Banaketa).
 4. Programa hobetzeko askatasuna eta hobekuntzak gainerakoentzat publikoak egin, komunitatea osoaren mesederako (Hobekuntza).
1. eta 3. Askatasunak emateko programaren kode-iturrira heltzea ahalbidetu behar da, software bat aztertzea eta aldatzea bere kode-iturririk gabe nekez gertatuko baita.

* WIKIPEDIATIK (ITZULPEN PROPIOA)

[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/SOFTWARE_LIBRE](https://es.wikipedia.org/wiki/Software_libre)



CONCEPT

TEMA

KODE IREKIKO
SOFTWAREAREN
70 PREMISAK

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

KODE IREKIKO SOFTWAREAREN 10 PREMISAK

1. Banaketa librea: softwarea libreki oparitua edo saldua izan daiteke.
2. Kode-iturria: softwarea kode-iturria barne eduki behar du edo hau libreki lortu ahal izan behar da.
3. Lan eratorriak: aldaketen banaketak baimenduak egon behar dira.
4. Egilearen kode-iturriaren osotasuna: lizentziek, aldaketak adabaki modura bakarrik banatzea eska dezakete.
5. Pertsona edo taldeen diskriminaziorik gabe: inor ezin da kanpoan utzi.
6. Ekimen arloen diskriminaziorik gabe: erabiltzaile komertzialek ezin dira baztertu.
7. Lizentziaren banaketa: programa jazotzen duten guztiek eskubide berdinak dituzte.
8. Lizentzia, ezin da izan produktu espezifikoko batena: programa ezin da lizentziatu banaketa handiago baten parte bezala.
9. Lizentziak ezin ditu beste software batzuk mugatu: lizentziak ezin ditu, software irekiarekin bananduak diren beste softwareak, kode-librekoak ere izatera behartu.
10. Lizentziak teknologiko neutrala izan behar du: lizentziaren onarpena ez da saguaren "klik" baten bidez edo softwarearen beste euskarriren baten bidez eskatu beharko.

* WIKIPEDIako SOFTWARE LIBRE ETA KODE IREKIARI BURUZKO SARRERA
(ITZULPEN PROPIOA) [HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/SOFTWARE_LIBRE_Y_DE_C%3%B3DIGO_ABIERTO](https://es.wikipedia.org/wiki/Software_libre_y_de_c%C3%B3digo_abierto)



CONCEPT

TEMA

HERRITAR
ZIENTZIA

iC/AZ
BILBO COMMONS
ic inteligencias
colectivas

HERRITAR ZIENTZIA

“Herritar zientzia bezala, zientzalari eta profesionalak jende arruntarekin kolaborazio talde baten bidez gauztutako ikerkuntza zientifiko bezala ulertzen da. Herritar Zientzia, formalki hurrengo moduan definitua izan da: “nagusiki bokazionala den oinarri batetik datuen bilketa eta azterketa sistematikoa, teknologiaren garapena, fenomeno naturalen ingururan egindako frogak eta, ikerlarien eskutik ekintza hauen hedatzea”

* WIKIPEDIATIK (ITZULPEN PROPIOA) (2016/02/09)
[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/CIENCIA_CIUADANA](https://es.wikipedia.org/wiki/Ciencia_ciudadana)

